



## Jatorri migratzailea duten ikasleen eskola segregazioa Gasteizen

Gaur aurkezten dugu gure azken lana: "**Jatorri migratzailea duten ikasleen eskola segregazioa Gasteizen**". Azterlan honen helburua jatorri migratzailea duten Gasteizko ikasle migratzaileen egoera aztertzea eta gure hezkuntza-sistemak aukera-berdintasunaren printzipioa oinarri duen egiaztatzea da. Lanketa hau, **STEILAS** sindikatua eta **IKUSBIDE**ren artean eraman dugu aurrera.

Azterketa enpiriko hori egiteko, inuesta bat egin eta Gasteizen DBHko 4. maila ikasten ari diren publikako ikasleen % 65,4ri pasatu zaio. Hala ere, gure hiriak dituen ezaugarriengatik, ateratako ondorioak erraz estrapolatu daitezke autonomia-erkidegoko gainerako lurraldeetara. Gaurtik aurrera, gure lan zabala Interneten egongo da eskuragarri, bi bertsiotan: txosten osoa eta bere laburpena.

Hementxe duzue horretarako lotura: <https://steilas.eus/2022/03/11/jatorri-migratzailea-duten-ikasleen-eskola-segregazioa-vitoria-gasteizen/>

Jarraian, lortutako datuen azterketa eta interpretazioetik ateratako **ondorioetako batzuk** deskribatuko ditugu.

1. Euskal Autonomia Erkidegoak, oro har, eta Gasteizek bereziki, estatuko eskola-segregazioaren indizerik altuenetakoa du. Era berean, Europako indizerik altuenetakoa ere eskola pribatu eta kontzeratuetan. Bi fenomeno horiek, segregazioa eta eskola pribatu-itundua, oso lotuta daude. Estatuko bigarrena da Madrilen atzetik (Ferrer eta Gortazar, 2021)
2. Segregatutako ikastetxeetan ikasleen % 83,8 migratzaileak dira, eta mota horretako zentroetan biltzen dira pobrezia-egoeran dauden ikasle gehien.
3. Segregatu gabeko ikastetxeetako ikasleen ia % 60k emaitza akademikoak ontzat edo oso ontzat jotzen du, eta segregatutako ikastetxeen kasuan, ehuneko hori hogei puntu jaisten da. Segregatu gabeetan, % 15,9k ikasturteren bat errepikatu du eta ikasgaien zama darama; segregatuetan, berriz, % 33,3k, hau da, herenak.
4. Jatorri migratzailea duten ikasleen % 60, segregatu gabeko ikastetxeetan, Euskal Herritar eta espanyiar gisa identifikatzen da. Segregatutako zentroetan 16 puntu jaisten da identifikazioa.

**5.** Segregatutako zentruetan, gazteen % 60 ez da gasteitzar sentitzen, segregatu gabeko zentroetan baino bi aldiz gehiago.

**6.** Eskola segregatuetako jatorri migratzaileko ikasle % 10ek nekez bizi du euskara berezko zerbait bezala. Segregatu gabeko zentroetan, ostera, migratzaileak diren gazteen erdiek baino gehiagok euskara berezko gauzatzat hartzen dute.

**7.** Etorkizunerako itxaropenei dagokionez, segregatu gabeko zentroetan gehienek ikasketekin jarraitu nahi dute eta unibertsitatean sartu (% 61,5), aldiz, segregatutako zentroetan ikasten dutenen artean ehunekoa % 45,6ra jaisten da. Bestalde, lanbide-heziketan sartzeko ikasten jarraitzea joera handiagoa da segregatutakoen artean. Ikasketak uzteko borondatea nahiko txikia da, baina maizago gertatzen da segregatutako ikastetxeetan.

**8.** Neskek, mutilek baino proportzio handiagoan, arrazagatiko bazterketa egoerak eta jarrerak bizi izan dituzte.

**9.** Segregatutako ikastetxeen existentziaren inguruko zergatiari erantzutean, neskek mutilek baino askoz ere proportzio haundiagoan erantzun dute diskriminazioa beren burua migratzailetzat jotzen ez dutenengandik datorrela.

Lortutako datuekin agerian geratzen da jatorri-desberdintasuna duten ikasleen bizitza pertsonala, eskolakoa eta soziala baldintzatzen dutela. Argi geratu da eskola-segregazioak eskubideak eta aukerak urratzen dituela. Beraz, esan dezakegu gure eskola-sistema ez dela oinarritzen aukera-berdintasunaren printzipioan.

Amaitzeko, hainbat alderdi politikok egunotan negoziatu duten hezkuntza-akordioa aipatu nahi dugu, EAeko etorkizuneko hezkuntza-lege bati sostengua emateko. STEILASen ustez, premiazkoa da lege horrek aukera-berdintasuna eta gizarte-kohesioa bermatzea, eskola segregazioa errotik geldiaraztea eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezartzea. Alderdi politikoak gonbidatzen ditugu gure txostena irakur dezaten, eta eskola segregazioa modu esplizituan debeka dezaten, bereizketa hori oinarrizko eskubideen urratze gisa eta zapalkuntza eta diskriminazio mekanismo gisa ulertuta.



**IKUSBIDE**



Euskal Herrian, 2022ko Martxoaren 22an

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@steilas.eus



## "La segregación escolar del alumnado de origen migrante en Vitoria-Gasteiz"

Hoy presentamos nuestro último trabajo "La segregación del alumnado de origen migrante en Vitoria-Gasteiz", el objetivo de este estudio es explorar la situación de la juventud de origen migrante y comprobar si nuestro sistema educativo se sustenta el principio de igualdad de oportunidades.

Para realizar este estudio empírico, se ha elaborado y pasado una encuesta al 65,4% del alumnado que cursa 4º de la ESO en centros públicos de Vitoria-Gasteiz. No obstante, por las características que presenta nuestra ciudad, las conclusiones extraídas son fácilmente extrapolables al resto de la comunidad autónoma. A partir de hoy, nuestro extenso trabajo estará disponible en internet en dos versiones: informe completo y un resumen ejecutivo del mismo.

Enlace del trabajo completo: <https://steilas.eus/2022/03/11/jatorri-migratzailea-duten-ikasleen-eskola-segregazioa-vitoria-gasteizen/>

A continuación describimos algunas de las conclusiones extraídas a partir del análisis e interpretación de los datos obtenidos.

- 1.** La Comunidad Autónoma Vasca en general, y Vitoria-Gasteiz en particular, presentan unos de los índices más altos de segregación escolar del estado. Y, a su vez, uno de los índices más altos de Europa en escuela privado-concerada. Estos dos fenómenos, segregación y escuela privado-concertado, están estrechamente relacionados.
- 2.** En los centros segregados el 83,8% de alumnado es de origen migrante y en este tipo de centros en dónde se concentra la mayor cantidad de alumnado en situación de pobreza.
- 3.** Mientras que casi el 60% del alumnado en centros NO segregados valora sus notas como buenas o muy buenas, en el caso de los centros segregados este porcentaje baja veinte puntos. En los NO segregados el 15,9% ha repetido curso o arrastra asignaturas del año pasado, en los segregados este porcentaje asciende al 33,3%.
- 4.** Un 60% de los alumnos de origen migrante, en los centros NO segregados, se identifican como vascos y españoles. En los centros segregados está identificación baja 16 puntos.
- 5.** Un 60% de la juventud de origen migrantes en centros segregados no se siente vitoriana, más del doble que en los centros NO segregados.

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
araba@stайл.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
bizkaia@stайл.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
gipuzkua@stайл.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
nafarroa@stайл.eus

**6.** A penas el 10% del alumnado segregado de origen migrante vivencia el euskera como algo propio. Sin embargo, más de la mitad de la juventud de origen migrante en centros no segregados considera el euskera como algo propio.

**7.** Respecto a sus expectativas de futuro, en los centros NO segregados la mayoría quiere seguir estudiando para acceder a la universidad (61,5%), entre quienes estudian en centros segregados el porcentaje se reduce al 45,6%. Sin embargo la opción de seguir estudiando para acceder a formación profesional es mayor en los segregados. La voluntad de abandonar los estudios es relativamente baja pero se da con mayor frecuencia en los centros segregados.

**8.** Las alumnas han vivido, en mayor proporción que los alumnos, situaciones y actitudes de rechazo por motivos raciales.

**9.** Respondiendo a por qué hay centros segregados, ellas, en una proporción mucho mayor que ellos, perciben que la discriminación procede de quienes no se consideran migrantes hacia quienes son de origen migrante.

Con los datos obtenidos se evidencia que las diferencias de origen condicionan la vida personal, escolar y social del alumnado. Ha quedado patente que la segregación escolar viola derechos y oportunidades. Por lo tanto, podemos afirmar que nuestro sistema escolar no se sustenta en el principio de igualdad de oportunidades.

Para acabar, queremos hacer referencia al acuerdo educativo que diferentes partidos políticos han negociado estos días para dar sustento a una futura ley de educación en la CAV. Desde STEILAS nos parece urgente que dicha ley garantice la igualdad de oportunidades y la cohesión social, ataje de raíz la segregación y establezca las medidas correctoras necesarias. Invitamos a los partidos políticos a que lean nuestro informe y les interpelamos para que prohiban de manera explícita la segregación escolar, entendida ésta como una conculcación de derechos fundamentales y un mecanismo de opresión y discriminación.



**IKUSBIDE**



Euskal Herrian, 2022ko Martxoaren 22an

[www.steilas.eus](http://www.steilas.eus)

Araba ☎ 945 14 11 04  
[araba@steilas.eus](mailto:araba@steilas.eus)

Bizkaia ☎ 944 10 02 98  
[bizkaia@steilas.eus](mailto:bizkaia@steilas.eus)

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00  
[gipuzkoa@steilas.eus](mailto:gipuzkoa@steilas.eus)

Nafarroa ☎ 948 21 23 55  
[nafarroa@steilas.eus](mailto:nafarroa@steilas.eus)